



ARAUTEGIA

HONDARTZA BOLEIBOLA 2023

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Boleiboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2023ko ekainaren 3an Tolosako Ferialean (Gipuzkoa). Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Mailak; infantilak, 2009 eta 2010ean jaiotako neska-mutilak.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.

2. TALDEEN OSAKETA

Talde bakoitzak 4 jokalariz izango ditu, entrenatzaileaz gain.

Erakunde bakoitza bi jokalariz osatutako bi talde desberdinekin lehiatuko da. Talde bakoitzak parte-hartzaileen inskripzio butelinean lehiaketa hasi aurretik adierazitakoekin osatu beharko du.

Partidaren aktan lau parte-hartzaileen izen emateak osatu beharko dira, lehenengo taldea eta bigarren taldea osatzen dutenen artean bereiztuz.

Entitate bakoitzak libreki erabakiko du partida bakoitzaren hasieran zein taldek jokatuko duen lehen seta. Hautatu ez diren bi pertsonak nahitaez jokatu beharko dute bigarrena. Hirugarren seta jokatuz gero, klub bakoitzak libreki erabakiko du taldea nola osatu aktan izena eman duten lau pertsonen artean.



Set batean parte hartzen ez duten jokalariek jokalekutik kanpo egon behar dute beti.

3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Jokatzeko formatoa: 2x2

Hiru setetik gehien irabazten dituen ekipoa izango da irabazle. Seta irabazten du 2 puntuko aldea atereaz 21 puntu lehen lortzen dituenak. Dena den, hirugarren seta bi puntuko aldea atereaz 15 puntu lehen lortzen dituenak irabaziko du, baina ez dago gehieneko puntu mugarik.

Aldaketak set bakoitzaren amaieran bakarrik egin daitezke eta bi hutsarte eskatu ahal izango dira.

4.- BALOIA ETA SAREAREN ALTUERA

Baloia Mikasa VLS200 izango da.

Sarearen altuera hau izango da :

Nesken kasuan : 2,10 m.

Mutilen kasuan : 2,24 m.

5.- SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

6.- EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkerio nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.



4. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2022ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2022ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f. Boleiboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.